**Compromiso con la democracia.**

## EN DEFENSA DE NUESTRAS INSTITUCIONES

La Asamblea Nacional de EAJ-PNV, reunida en sesión extraordinaria y urgente, considera grave la intromisión abusiva del poder judicial en el ámbito de la política democrática, lo que va reduciendo gravemente los espacios de decisión de las instituciones públicas. Este afán de acaparar, ilegítimamente, la vida política, exhibido por determinados representantes de la justicia, puede derivar en auténtica criminalización de la propia actuación política para la que han sido legítimamente elegidos los representantes de la voluntad popular, con consecuencias graves para el sistema democrático. Tal es el caso de la causa penal abierta contra el Lehendakari.

Es pilar básico en una democraci a el principio de división de poderes. Este principio, basado en un sistema de controles y contrapesos mutuos que tienden a garantizar la limitación de los poderes, el sometimiento de su ejercicio al ordenamiento jurídico y la salvaguarda de los derechos y libertades de los ciudadanos, está siendo violentado en el Estado español.

Reconocemos la capacidad de control de la justicia sobre la actuación de los otros poderes del Estado, aunque afirmamos, así mismo, que ésta nunca puede realizarse en contra del ejercicio de la política. La actuación de la Sala de lo Penal del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, busca una clara interferencia política, a través del ejercicio de la acción penal, modificando la actuación democrática de un gobernante, en este caso, del máximo representante institucional de Euskadi, el Lehendakari.

Llama r al Lehendakari a declarar como imputado en esta causa penal por dialogar, supone un ataque al conjunto de la sociedad vasca, que él representa.

Euskadi vive momentos de preocupación y de búsqueda de caminos de paz, con una gran madurez democrática y una ejemplar serenidad de juicio. Ello nos exige a los partidos políticos y a las instituciones públicas, firmeza en los principios éticos y democráticos y compromiso con la sociedad y su futuro.

El ejercicio de la política, en democracia, va intrínsecamente ligado al diálogo, al debate y al acuerdo. Y, concebido así, constituye el mejor instrumento para la resolución de los problemas. Las divergencias políticas y el debate de los proyectos y propuestas, son expresiones de libertad y democracia que los representantes políticos y las instituciones tenemos el deber de expresar y preservar, desde los pri ncipios éticos y las reglas de juego de un sistema democrático.

Somos conscientes de las dificultades de la tarea judicial y de las amenazas a jueces y magistrados. Aún sentimos el horror de la muerte de ilustres miembros de la judicatura a los que la violencia de ETA arrancó el único derecho cuya vulneración es irreversible: la vida.

Sabemos también de muchos jueces que, en condiciones difíciles llevan a cabo su tarea con una integridad encomiable, desde la convicción de que el límite de su independencia reside en el respeto a los principios del estado de derecho y a las reglas de la democracia. Y tienen por ello nuestro reconocimiento y el de toda la sociedad vasca.

Consternados por la extrema judicialización de la política que conlleva la invasión del poder judicial en el ámbito político mediante la criminalización del Lehenda kari por haber afrontado con responsabilidad el mandato encomendado por la ciudadanía vasca,

**La Asamblea Nacional de EAJ-PNV, reunida en sesión extraordinaria y urgente:**

1. Denuncia la politización de la Justicia, que intenta coartar la función que corresponde a las instituciones políticas y a los directos representantes de la voluntad popular. Muestra su apoyo firme y rotundo al Lehendakari Ibarretxe en contra de la causa penal abierta contra él por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, pretendiendo anular sus derechos fundamentales y su responsabilidad institucional de dirigir la iniciativa política en nuestro País.

2. Reclama el ejercicio de la política en paz y libertad, sin la amenaza de su judicialización, ya que el diálogo, las actuaciones institucionales y políticas para impulsar soluciones justas y democrát icas a los conflictos, nunca pueden ser ilegales y, mucho menos, delictivas.

3. Como ciudadanas y ciudadanos comprometidos con el futuro de Euskadi en paz y conscientes de la gravedad del ataque judicial a los pilares de la democracia, al derecho al ejercicio de la

política y al valor de nuestras instituciones, exigimos el archivo inmediato de la injustificable causa penal abierta contra el Lehendakari.

La Asamblea Nacional de EAJ-PNV exige una justicia garantista de los derechos y libertades y respetuosa con la democracia. Exigimos a los tribunales que defiendan nuestra libertad, que defiendan el derecho a la palabra, al diálogo y a la acción política democrática. No renunciaremos jamás al diálogo, y alzaremos siempre nuestra voz ante la penalización del mismo.
No se trata sólo de defender a Juan José Ibarretxe. Se trata de defender un principio democrático bási co. El de la acción política frente a la amenaza de la criminalización del diálogo, una línea roja que nadie, en democracia, debe cruzar. Ante este atropello, no podemos ni debemos permanecer en silencio quienes creemos en los pilares de la democracia. Por ello, por los valores básicos que nos han inspirado como Partido, por nuestro acervo democrático y humanista, denunciamos este acto, por lo que supone de intromisión en la tarea institucional del Lehendakari y de quiebra de los principios de la democracia y el estado de derecho.

Sabin Etxea, 22 de enero de 2007

***Konpromisoa demokraziarekin***

***GURE ERAKUNDEEN DEFENTSAN***

*Ez-ohiko bilkuran eta urgentean bildutako EAJ-PNVren Aberri Batzarrak kezkagarritzat jotzen du botere judiziala politika demokratikoaren esparruan gehiegi sartu izana. Horrek ordezkari diren erakunde publikoen erabaki-eremuak murriztu baino ez ditu egin, zutabe nagusi den Zuzenbide Estatuak bermatu beharko lukeena albo batera utzita, hots, euskal herritarren eskubideak zaintzea eta herri-subiranotasuna ziurtatzea. Legez kontra, justiziako ordezkari batzuek erakusten duten bizitza politikoaz jabetzeko nahiak erantzukizun politikoa bera kriminaliza dezake, herritarren nahia ordezkatzen duten erakundeentzat ondorio larriak ekarrita. Eta hori guztia, legea errespetatuta, herritarrek eman diguten erantzukizuna gauzatzeagatik. Horrela da, behintzat, Ibarretxe lehendakariaren aurka irekitako auzi penala.*

*Demokraziaren oinarrizko zutabea botereen arteko banaketa da. Printzipio hori botereen mugak bermatzeko, zeregina ordenamendu juridikoan gauzatzeko eta herritarren eskubideak eta askatasunak bermatzeko kontrolen zein elkarrenganako kontrapisuen sisteman oinarritzen da, eta Espainiako Estatuak bete-betean bortxatu du.*

*Botereen arteko kontrolak ere sistemaren zati izan arren, Estatuko beste botereen gaineko –eta, bereziki, Exekutiboaren gaineko– kontrol judiziala ezin daiteke printzipio demokratikoak duen nagusitasunaren aurka gauzatu. Hala, EAEko Auzitegi Nagusiko Zigor Arloko Salak interferentzia politiko garbia eragin nahi du, horretarako ekintza penalaz baliatuta, eta gobernari baten jarduera demokratikoa aldatuta. Kasu honetan, aldatu nahi duten jarduera Euskadiko erakundeen ordezkari behinenarena da; lehendakariarena, hain zuzen ere.*

*Lehendakariari, elkarrizketa bat izateagatik, kargudun gisa auzitegian deklaratu beharra eskat zea, Lehendakariak berak ordezkatzen duen gizarte osoari egiten zaion erasoa da.*

*Euskadi, euskal gizartea, kezka handiko eta bakea lortzeko bideak bilatzeko uneak bizitzen ari da, heldutasun demokratiko handiarekin eta zentzutasun eredugarriarekin. Hori dela eta, alderdi politikooi eta erakunde publikoei printzipio etikoetan eta demokratikoetan irmotasunarekin aritzeko eta gizartearekin zein horren etorkizunarekin konpromisoak hartzeko eskatzen digu.*

*Demokrazian, politikan aritzea estu-estu lotuta dago elkarrizketari, eztabaidari eta akordioari. Eta, horrela ulertuta, arazoak konpontzeko tresnarik onena da. Desadostasun politikoak eta proiektuen zein proposamenen eztabaida, printzipio etikoetatik eta Zuzenbide Estatuaren joko-arauetatik abiatuta, ordezkari politikoek eta erakundeek adierazi eta gorde beharreko askatasun- eta demokrazia-adierazpenak dira.*

*Ezagunak zaizkigu lan judizialak izan ohi dituen zailtasunak, baita epaileei zein magi stratuei zuzendutako mehatxuak ere. Oraindik ere sentitzen dugu epailetzako kide ospetsuen heriotzak eragindako izua. Izan ere, ETAren indarkeriak atzera itzulerarik ez duen eskubide bakarra urratu zien: bizitza.*

*Badakigu epaile askok, baldintza zailetan, zuzentasun goresgarriarekin burutzen dutela euren lana, independentziaren muga Zuzenbide Estatuaren printzipioak eta demokraziako arauak errespetatzean datzala pentsatuta. Eta, horregatik, gure errekonozimendua eta euskal gizarte*

*osoarena daukate.*

*Euskal herritarrek emandako aginteari modu arduratsuan aurre egiteagatik, Ibarretxe lehendakaria kriminalizatuta, botere judizialak esparru politikoa inbaditu izanak eragindako politikaren muturreko judizializazioak atsekabetuta,*

***EAJ-PNVren Aberri Batzarrak, ez-ohiko bilkuran eta urgentean bilduta:***

*1. Justiziaren politizazioa salatu nahi du; izan ere, politizazioak erakunde politikoen eta herritarren nahia zuzenean o rdezkatzen dutenen zeregina mugatu nahi du. Era berean, Ibarretxe lehendakariari babes irmoa eta erabatekoa adierazi nahi dio, gure Herrialdean ekimen politikoa zuzentzeko daukan erakunde-ardura eta oinarrizko eskubideak baliogabetzeko asmoarekin, EAEko Auzitegi Gorenak bere aurka irekitako auzi penalaren aurrean.*

*2. Politika bakean eta askatasunean oinarrituta gauzatu ahal izatea eskatzen du, judizializazioaren mehatxurik gabe; izan ere, konponbide justuak zein demokratikoak sustatzeko erakunde-ekintzak eta ekintza politikoak ezin dira legez kanpokoak izan, eta, are gutxiago, delituzkoak.*

*3. Bakea ardatz izango duen Euskadiren etorkizunean konprometitutako herritar gisa, eta demokraziaren zutabeei, politika gauzatzeko eskubideari eta gure erakundeen balioari zuzendutako eraso judizial larriaren jakitun izanda, berehala lehendakariaren aurka irekitako auzi penala artxibatzeko eskatzen dugu.*

*EAJ-PNVren Aberri Batzarrak eskubideak eta askata sunak bermatuko dituen eta demokrazia errespetatuko duen justizia eskatzen du. Auzitegiei gure askatasuna defendatzeko eskatzen diegu; hitz egiteko, elkarrizketak izateko eta ekintza politiko demokratikoa burutzeko dugun eskubidea. Inoiz ez diogu muzin egingo elkarrizketari, eta horren penalizazioaren aurrean gure ahotsak goratuko ditugu.*
*Gure helburua ez da Juan Jose Ibarretxe defendatzea, oinarrizko printzipio demokratikoa defendatzea baizik. Elkarrizketa kriminalizatzeko mehatxuaren aurrean ekintza politikoa defendatuko dugu, demokrazian, inork igaro behar ez duen lerro gorria delako. Bidegabekeria horren aurrean, demokraziaren zutabeetan sinesten dugunok ezin dugu isilik geratu. Hori dela eta, Alderdi gisa inspiratu izan gaituzten oinarrizko balioengatik, gure ondare demokratikoagatik zein humanistagatik, demokraziaren eta Zuzenbide Estatuaren printzipioak urratzen dituen ekintza hau salatzen dugu.*

*Sabin Etxean, 2007ko urtarrilaren 22an*